224. zenbakia
Abendua 2022 ·

pulunpe

Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

Hitzak soberan

"Gaur,
gauza franko
esanen nizkizuke.

Zu bezalakoa
izan nahi nukeela,
besteak beste.

Hamaika hitz,
pila laudorio
idatz nitzake.

Baina...
zu bezalakoa
izan nahi nukeela esan eta,
dena adierazita dagoela
deritzot."

Argitaratzailea Ametza Kultur Elkartea

PULUNPE SAREA
Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA
pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK
Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Denok bat elkartea.

KOORDINATZAILEAK
Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA
1.700 ale

INPRIMATEGIA
Gertu

MAKETAZIOA
Zas Komunikazioa

Azaleko Argazkia
Lizasoko pestak. Perico Zunzarrenek bidalitako argazkia

LEGE GORDAILUA
NA 721/93

Inprimategira abenduaren 7an bidalia

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

AURKIBIDEA

04 **Gaurko gaia.** *Non zaude?*

07 **Kronika.** *Denok bat, Jubilatuen Elkartea*

08 **Euskara erreza.** *Toponimia*

10 **Albisteak.**

14 **Erreportajea.** *Alkozko korua*

18 **Ekimenak.** *Tokikomek 10 urte*

20 **Aspaldiko kontuak.** *Etxalekuko notarioa*

22 **Ekimenak.** *Juanbeltz gaztategia*

23 **Ardo Frexkoa.** *Geren izena ere galdu dugu?*

24 **Kirola.** *Maika Iraizoz*

26 **Ingurumena.** *Onddoak*

28 **Zer irakurri.** *Durangoko azoka*

30 **Jaiotzak eta heriotzak.** *Urria*

Non zaude?

Heriotza, bizitza espero duzunean

Miren Lopez Larekik aurreikusitakoa baina hiru aste lehenago erditu zuen alaba, Maitane. Hilik. Ordu batzuk lehenago, oraindik tripa barruan, bihotza gelditu baitzitzaion. Horrek bihotza geldiarazi zien guraso, aitona-amona, bizilagun eta June ahizpa nagusiari ere. Alaba zaharrari nola azaldu ez zekiela, gertatutakoa ipuin batean idatzi zuen amak. Gero, ipuina bere bidea egiten hasi zen eta liburua argitaratu du aurtengo ekainean. Amaia Urdaniz Ostiz aritzuarrak jarri dizkio marrazkiak.

2020ko apirilaren 1ean, espero baino lehen, hartu zuten ospitalerako bidea Miren Lopez Larekik (Burlata, 1979) eta bere senar Borjak. Haurdunaldiko azken aste horiek izurrite bete-betean harrapatu zien, itxialdian. Amaia Urdaniz Ostiz (Aritzu, 1988) paretaren beste aldean bizi da, eta balkoira ateratzearekin eta leiho arteko elkarrizketetan harreman estua egin zuen Miren, Borja eta Junerekin: "Egun batean ez genituen etxean sentitzen. Gaur egun izan balitz agian ez ginen konturatuko, ez baikaude etxean.. Baina orduan bai. Eta arraroa egin zitzaidan". Erditzeko hiru aste falta ziren oraindik.

Handik egun gutxira Amaiak leihoaren beste aldean topatu zituen Miren eta June, eta albiste txarra eman zioten: "Beste gauza asko naturalki esaten zizkidan bezala, hori ere horrela esan zidan Junek: 'Maitaneri bihotza gelditu zaio'. Eta momentu horretan guri ere bihotza gelditu zitzaigun. Pentsa, leihotik leihora, ezin duzu besarkada bat ere eman...". Maitane hilik jaio zen haurdunaldiko 37. astean.

Non zaude?

Gurasoak Junerekin berriz bildu zirenean, ospitaletik it zultzerakoan, hori zen alaba zaharrak errepikatzen zuen galdera, behin eta berriro. Miren López: "Oso gogorra izan zen. Non dago Maitane?', galdetzen zuen behin eta berriz. 'Hor dago, sabelean, ostikada bat eman baitit'. – 'Ez, June, ez dago hor... - 'Bai, sentitu dut, ama, sentitu dut, hor dago! Edo igual sehaskan egongo da, edo bestela, ospitalean...'". Amaia Urdaniz: "Berak ez zuen Maitane ikusi ere egin. Bederatzi hilabete badatorrela esanez, eta etxera etorri behar zenean, non zegoen?".

> **Amaia Urdaniz:**
> **Etxera etorri behar zuenean, non zegoen Maitane?**

Juneri erantzunak emateko sortu zen liburua, beraz. Miren López: "Niri asko gustatzen zaizkit liburuak eta liburu ilustratuak. Baina egia esanda heriotzaren inguruan ez genuen ezer etxean. Bilatzen aritu nintzen, internet bidez, eta dolu perinatalari buruzko bat aurkitu nuen. Amerikarra zen, itzulitakoa, eta testua ongi zegoen, baina umeendako ez zen aproposa. Tartean, lankide batek esan zidan idazteak doluan lagunduko ninduela, eta hortik sortu zen ipuina". Testua idatzi zuenean, afarian, Juneri kontatu zion, eta bere erantzuna harrigarria izan zen: "Bat-batean behera begira jarri zen eta negarrez hasi zen. Gero ez dakit zenbat aldiz esan zidan berriz kontatzeko, eta negarrez jarraitzen zuen. Kontatzen jarraitu nuen eta azkenean ez zuen negarrik egiten. 'Joe, ama, hori gure historia da, benetakoa', esan zidan, eta oso pozik dago horrekin".

Miren Lopez Lareki eta Amaia Urdaniz Ostiz, ipuina eskuetan

Ipuinak, bere bidea

Liburuak helburu nagusia bete zuen: Juneri ulertzen laguntzea, eta doluan ere lagundu zien guztiei. Amaia Urdaniz: "Niretzat oso polita izan zen Borjarekin batera, elkarrekin ikusteko tarte bat hartu zutela esan zidatenean, negar egiteko edo etortzen zitzaizkien sentimendu horiek azaleratzeko. Nik horrekin nahikoa nuen! (barreak)". Gainera, historiarekin guztiz identifikatuta sentitu zen bezala, marrazkiekin ere hala egin zuen Junek. Amaia Urdaniz: "Oraindik ere, bere burua ikusten du marrazkietan".

Baina lau emakumetatik batek sufritzen du abortua (lehenengo eta hogeita bigarren aste tartean) edo umea hilik erditzen du (hogeita bigarren astetik aurrera), eta, horregatik, euren historiak beste batzuei lagun ziezaiokeela pentsatu zuen Mirenek: "Amaiak guretzat gordeko genuela esaten zuenean nik esaten nion: 'Ez, ez, hau munduak ikusi behar du!' (barreak). Beste familiendako ere bazela pentsatu nuen". Bada, helburu hori ere, bete du. Aurkezten hasi zirenetik, emakume asko hurbildu zaizkie beren historia kontatzeko, gazteak eta adinekoak, batzuek lehenengo aldiz aurkitu dute negar egiteko eta elkarbanatzeko tarte hori". Amaia Urdaniz: "Hori izan da politena, jendea horrekin identifikatzea. Alde horretatik, harrera izugarria izan da, ez dut hitzik deskribatzeko. Nik hor utzi izanen nukeen, baina gerora ekarri dituen gauzak...".

Ekainean argitaratu zuten, autoedizio bidez, Gráficas Castueran inprimatuta. Gazteleraz argitaratu da, baina euskarara ere itzuli nahiko lukete, eta, horretarako, argitaletxe baten esku utzi nahiko lukete.

Mina, aintzat hartu

Antzeko egoera bizitako familiak laguntzeaz gain, gizartean aldaketa bat eragiteko alea ere jarri nahi dute ipuinarekin. Izan ere, orokorrean heriotza tabua den honetan, umeena are gehiago isiltzen da. Urteetan mina norberarendako gorde eta orain liburuarengatik hurbildu zaizkien aipatu emakumeak, kasu. Miren López: "Besteek umea ikusi ez dutenez, ez da gertatu. Guk album bat egin genuen argazkiekin, eta askok, ikusten dutenean, 'ez nuen pentsatzen horrela izango zenik' esan digute, haur bat baita, hilda badago ere. Nik edozein emakume bezala erditu nuen, eta erditu eta geroko errekuperazioa egin behar izan dut beste edozein erditutako emakumek bezala".

Esaten denarekin kontu handiz ibiltzea ere eskatzen du Mirenek:

Amaia Urdaniz aritzuarrak jarri dizkio marrazki eder hauek ipuinari

Lau emakumetatik batek sufritzen du abortua edo umea hilik erditzen du

"Niri agian ez zait hainbeste pasatu, baina zenbait laguni edo ezaguni bai. 'Beno, baduzu etxean 'el quitapenas' entzun behar izan dute. Eta hori ez da horrela, baduzu beste seme edo alaba bat. Edo, 'gaztea zara, izanen dituzu gehiago', esaten den beste esaldi bat da. Baina hil dena, hil da, eta hura ez da bueltatuko, eta nik hil denarengatik mina daukat". Bikotekidea, laguna edo gurasoren bat hil zaionari esango ez geniokeena ez esatea eskatzen du Lopezek.

Maitasuna ez da astetan neurtzen

Kasu gehienak abortu natural deitzen dugun horiek izaten dira, hau da, lehenengo 22 asteetan hiltzen diren fetoena. Horregatik, bikotekide gehienek aste hori pasa arte ez dute haurdunaldiaren berri ematen. Isiltasuna, berriz ere. Urdanizek eta Lopezek ez diote zentzurik ikusten. Miren López: "Dolu perinatala inbisibilizatuta badago, lehenengo hiru hilabeteetan hiltzen diren umeena hori ia ikusezina da. Ohitura da hiru hilabete bete arte ez esatea, ordura arte hil daitekeelako... eta zer hiltzen bada? Hil da eta gainera mina isilik eraman behar al dut? Hori ere aldatzen ari da, zorionez".

Horrekin lotuta, haurdunaldiaren lehenengo hiru hilabeteetan umea hil zaienen mina deuseztatzen dela salatzen dute. Amaia Urdaniz: "Hurbildu zaizkigu haurdunaldiko momentu ezberdinetan hil zaizkien emakumeak. Kanpotik nik ere ikusten dut 'honi hil zaio aste baten faltan, ia egina zegoen, hori mingarriagoa izan behar du bestea baino'. Eta, ezberdina da eh, ez dut

esaten ezetz, aste gutxi haurdun daramanak ez du erditu behar eta prozesua ezberdina da. Baina norberaren mina hor dago, beste gauza askotan bezala, zuri mina egiten ez dizun zerbaitek igual beste bati mina ematen dio...". Miren López: "Gakoa lotura da (binkulazioa), eta nola egin duzun lotura hori. Batek astebetean izugarrizko lotura garatu dezake eta beste batek 35 astetan igual ez hainbestekoa. Geroz eta aste gehiago izan baduzu geroz eta gehiago maite duzula pentsatzea ez da zuzena. Maitasuna ez da astetan neurtzen".

Marrazkiak ere, tripetatik

Esan bezala, Amaia Urdaniz Ostiz aritzuarrak jarri dizkio irudiak Miren Lopez Larekiren liburuari. Arte Ederrak ikasi zituen.

"Nik akuarelak ditut gustuko eta koloretako arkatzekin ere gustura aritzen naiz. Teknikoki argi nuen, beraz. Baina nik ez dut inoiz libururik egin, marrazki asko ditut, baina pertsonak marraztea asko kostatzen zait. Hor, bai, proba asko egin nituen. Liburuan ere ikusten da nola pertsonaia nagusia aldatzen doan, eta, beharbada berdinagoa izan behar luke, baina ez dugu ezer ere ukitu. Irudiak naturaltasun horrekin utzi ditugu". Aitortu digunez, oso erraza izan zen, dena den, Mireni dena gustatzen baitzitzaion, eta horregatik, gutxi ukitu zituzten marrazkiak, tripetatik atera ziren bezala utzi zituzten.

"Imajinatzen nituen bezala irudikatzen saiatu naiz. Adibidez, denek oso gustuko dute musika, baina, gainera, Borjak gitarra jotzen du, irakaslea da eta gustatzen zaio ikasleekin hori baliatzea... eta nik gitarra jotzen eta abesten entzuten nituen, Maitaneri ere kanta bat egin baitzioten... hormaren beste aldean imajinatzen nituen bezala marraztu ditut".

Dolurako, oroitzapenak sortu

Esan dugun bezala, izurritearen momenturik gogorrenean hil zitzaien Maitane. Horrek prozesua oztopatu zuen nolabait. Izan ere, Mirenek eta Borjak bakarrik ezagutu zuten alaba. "Eta eskerrak nire bikotekidea sartu ahal izan zela, alarma egoeran baikeunden, eta printzipioz ezin zen bikotekidea ere egon, pasatzen utzi zioten, baina ez zen batere erraza. Orain izango balitz June eta aitona-amonak ere sartu izan ziren Maitane ezagutzera eta agurtzera".

Egoera berezi batean zeuden, baina, Lopezek baieztatu digunez, urratsak egin direla ikusi zuen ospitalean. Gizartean izaten den isiltasunerako joera horren kontra, bertan gomendatu zioten Maitanerekin argazkiak ateratzea, eta momentuan arraro egin bazitzaien ere, egin zuten eta gaur egun izugarri eskertzen dute. Miren Lopez: "Oso garrantzitsua da oroitzapenak sortzea. Momentu bakar bat baituzu ezagutzeko eta agurtzeko. Guri ospitalean proposatu ziguten, eta hasieran harriduraz hartu genuen, argazkiak ateratzea, janztea, ufff... baina oso garrantzitsua da. Junek ere albuma hartzen du, besarkatzen du, oso inportantea baita zerbait fisikoa izatea. Gure alabak lezio bat eman digu doluari buruz. Berak eskatzen zuen agurtzea, erritualak egitea, eta bere eskakizunak entzun ditugu".

Funtzio pedagogikoa, gizartean aldaketa eragiteko eta doluan laguntzeko. Gauza askotarako balio izan du liburuak. Baina, batez ere, galdera nagusia erantzuteko. Miren Lopez: "Sinesmen espiritualak edo erlijiosoak dituztenek erantzuna badute, baina guk benetako zerbait esan nahi genion Juneri, berak ulertuko zuen zerbait. Non dago Maitane? Bada, gure bihotzean, gure sentimenduetan eta gure pentsamenduan, hau da, gure memorian. Hori da Juneri eman nahi genion mezua.

Maitaneri egin zioten kanta abesten entzuten zituen Urdanizek paretaren bestaldean. 'Imajinatzen nituen bezala irudikatzen saiatu naiz'

Zahartze osasuntsurako urratsak

Azaroan egindako laburpena egin digute orri honetan Denok Bat jubilatuen elkarteko kideek. Beti bezala, ongi pasatzeko eta ikasteko tartea hartu dute.

Banca digitala

Aurrekoan aurreratu genuen bezala, azaroaren 9an izan genuen Rural kutxaren eskutik Banka Digitalaren ikastarotxoa. Bertan, 14 bazkide bildu ziren, eta oso interesante eta beharrezko jo zuten han ikasitakoa, batez ere, segurtasunaren aldetik: nahi ez duzuna ez pasatzeko trabak jartzen erakutsi zuten ikastaroan.

Erriberrirako txangoa

Hilabeteko txangoa Erriberri-Olitera izan genuen hilaren 17an. Bi taldetan banaturik ibili ginen eta Jauregi kanpoko eta barneko txokoak erakutsi zizkiguten, jauregiaren dotoreziak eta bidegabekeriak azalduz. Bidenabar, hainbat istorio kontatu zizkiguten, batzuk dibertigarriak, besteak latzak.

Kanpoaldean, Andre Maria Erreginaren eliza ataria erakutsi ziguten. Parisko Notre Damekoarekin dituen antzak nabarmendu zituzten eta horren zergatiak: garaia hartan Nafarroak Frantziarekin harreman hurbilagoak zituela azaldu zuen Espainiarekin baino.

'Zahartze osasuntsua' jardunaldia

Zahartze osasuntsuari buruz egin zen jardunaldian, Denok Bat elkarteak parte hartu zuen antolaketan eta, batez ere, gure bazkideen presentzia nabaria izan zen. Azaroaren 25ean izan zen Ultzamako frontoian, goizeko 10:00etan hasita. Jardunaldi hau Osasunbideak antolatu zuen Navarrabiomedekin, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Anue, Atetz, Basaburua, Lantz, Odieta eta Ultzamako udalekin elkarlanean.

Hizlariak, Nuria Goñi (Lehen Mailako Arretako Gerentziatik), Mª Jose Galán (Larraintzarko osasun-etxekoa), Borja Azaola (Olagueko osasun-etxekoa) eta Nicolas Velilla (Nafarroako Unibertsitate Ospitalekoa), gai hauei buruz aritu ziren: ariketa fisikoaren beharra, elikadura onuragarria, medikazioaren zaintza, harreman sozialaren garrantzia eta ospitaleratu ondoren nola zaindu behar garen azalduz eta aldi berean gomendioak emanez.

Miren Huartek (Ultzama inguruko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatekoa) eta Pilartxo Larraldek (Larraintzarko osasun-etxekoa) harreman sozialak nola mantendu eta inguruan dauzkagun baliabideak aipatu zituzten.

Gure aldetik, Nartxi Navarrok eta Maribel Mariñelarenak, bere esperientziatik hitz egin zuten nola egiten duten zahartze osasungarria lortzeko. Bukatzeko, pintxo osasungarri bana eskaini genien bertaratutako guziei, Bentako tabernak egindakoa.

Alde praktikoa ere izan zen, eta bakoitzari neurketa batzuk egin zizkieten, Vivifrail Ariketa Fisikoa Sustatzeko Programari jarraituz. Gero, norbere neurrien arabera, koadernotxo bat eman ziguten etxerako lanarekin. Bestetik, 3D betaurrekoen bidez Nafarroako hainbat tokitan barna ibilbide birtuala egiteko aukera izan zen, adinekokin jarduera fisikoa eta kognitiboa sustatzeko erabiltzen dituztenak, hain zuzen ere.

Abendurako daukaguna urte bukaerako festa da, hilaren 17an ospatuko dugu, urtean zehar hil direnak oroituz eta bazkaria eta dantzarekin urteari agur esanen diogu. Izanen duzue horren berri datorren alean.

Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.

Andra Maria Erreginaren eliza atarian, talde argazkia

Denok Bat Jubilatuen Elkartea

Zer esan nahi du...?

Euskara errazean

Toponimia: Gure herri eta lekuen izenak

Atal honetan, euskara errezean idatzita, euskararekin zerikusia duten pasadizoak eta bitxikeriak azalduko dira. Honetan, tokien izenak eta toponimia.

Zer da toponimo bat?

Pertsona eta gauza guztiek izena dute. Lekuek ere bai. Leku bat identifikatzeko, izen bat ematen diogu. Izen hori da toponimoa. Hori da bere funtzioa. Izen propio bat da. Ez du **esanahirik** izan **behar**.

Oso polita da toponimoak ulertzea. Baina batzutan oso zaila da. Etimologiak esaten digu toponimoen **esanahia** (edo **saiatzen** da). Horretarako toponimoen historia **aztertzen** du (agiri zaharretan). Hitzen historia ere aztertzen du (noiztik erabiltzen da hitz hori? Zein da bere **jatorria**?). Eta hitzaren formaren eta esanahiaren **bilakaera** ere **aztertzen** ditu.

Toponimoa **sortzeko** bi **bide** daude:

1.- Lekuaren deskripzioa egin.

2.- Lekuaren **jabea izendatu.**

1.- Deskriptiboak:

Landaredia*

Gorosti (acebo): Gorostieta. Gorostiaga, Gorostapolo...

Urki (abedul): Urkiaga...

Hurritz (avellano): Urritza, Urritzola, Urritzelki...

Arte (encina): Arteta, Artazu, Artabia, Arteaga...

Elorri (espino): Mendillorri, Elgorriaga...

Lizarra (fresno): Lizaso, Lizarraga, Lizarrusti...

Iratze (helecho): Irelarre, Iratxeta, Irati...

Ihi (junco): Itza, Izu, Iso...

Ote (argoma): Otazu, Oteiza...

Haritza (roble): Aritzu, Arizkun, Ariztegi, Arizaleta, Aristu...

Mikel Belaskoren materialetan eta Nafarroako gobernuko toponimia eta mapagintza argitalpenetan oinarritu da artikuluaren egilea

Saratsa (sauce): Jaunsarats, Saratsa, Saratsate....

Hagin (tejo): Aginaga, Agiña...

Baso/oihan (bosque): Basaburua, Oiartzabal, Oianzabal, Oiarbide...

Sarri (espesura) **zuhaitz** (árbol): Sarriguren, Zuasti..

Lurraren kalitatea, lurraren erabilera*:

Gatz, gesal (salitre, sal, agua salada): Gaskue, Gesalatz...

Legar (grava): Legarda, Legasa..

Erre (quemado), **Berro** (roturaciones) (deforestazio **moduak**): Errea, Reta, Berroeta, Berrueza..

Elke (campo de cultivo), **soro** (prado), **larre** (pastizal), **alor** (pieza): Beuntza-Larrea, Irunlarrea, Elkano, Elkarte, Sorauren, Sorogain, Sorozabal, Auzalor...

Komunikazioa

Bide (camino), **ibi** (vado), **ate** (puerto), **zubi** (puente): Bidaurre, Ibiriku, Eulate, Zubieta, Goizueta, Zubiri..

Eraikuntzak*

Hiri (pueblo, villa,ciudad..), **etxe**: Etxaleku, Etxaide (etxe+bide), Hiriberri, Irisarri, Etxabakoitz...

Zer esan

nahi du...?

Gaztelu (castillo), **muru** (muralla): Muruzabal, Gaztelu, Gaztelugatxe

Ola (cabaña, ferreria): Olague, Urritzola (Urritz+ola), Olano, Otsola (otso+ola), Olaibar, Olabe, Artola (ardi+ola)

Eliza (iglesia): Elizondo, Lazagurria..

Ura

Iturri (fuente), **usun**, **osin** (pozo): Iturgoien, Usun, Osinaga, Sunbilla..

Idoi (balsa), **more**, **laku(n)a** (laguna): Idoate, Idoi, Murieta, La morea, Lakuntza...

Animaliak

Beor (yegua), **aker** (macho cabrío): Beorburu, Beortegi, Akerreta...

Otso (lobo), **erbi** (liebre): Otsola, Otsobi, Otsabide, Otsagabia, Erbiti...

Orokietatik Ultzamara begira ateratako argazkia. Ezkerrean ikusten den etxea Orokieta da eta eskuin aldean, txiki txikia ikusten den herritxoa, Ilarregi.

ATZIZKI* BATZUK

-gue/kue/kun (lugar de, espacio)

Olague, Egozkue, Leazkue, Gaskue, Arizkun (Aritz+kun)

-eta, -aga, -tegi: Atzizki hauek "Lekua" **adierazten** dute. Atzizki lokatiboak dira.

Gorostieta, Orokieta, Baratxueta, Ollakarizketa, Odolaga, Osinaga, Aginaga, Urkiaga, Astigarraga...

-tz, -tza, -ti/-di, -tsu/-zu,...: ugaritasuna adierazten dute.

Aritzu, Zabaltza, Ekiza, Iguzkitza, Gorostidi...

2.- Lekuaren jabea* izendatu (antroponimoak) Pertsonaren izena + propietate atzizkia" **omen** dira toponimo hauek (**gehienak**. Batzuk deskriptiboak ere bai).

-**ain** (Gerendiain, Gendulain, Galain, Etulain, Burutain, Etsain, Orikain, Markalain..)

-**ano/-ao/-io** (Argiñano, Undiano/Undio, Galdeano/Galdio, Otxandiano/Otxandio...)

-**iz/-itz:** (Muskitz, Ostitz, Enderitz, Mezkiritz, Oderitz, Agoitz...)

-**oz/-oze/-otz** (Nafarroa) (Iraizotz, Oskotz, Alkotz, Aizarotz, Uztarroze, Ilurdotz, Arraioz..)

-**ues/oze** (Nafarroa ekialde eta Aragoi) (Nabaskoze/Navascués, Nardoze/Nardués..)

-**os** (Akitania)

Orain hobeki ulertzen dituzue toponimo batzuk? Pozten gara!

Hiztegia

Esanahi: Significado
Behar: Necesitar
Hala ere: Aún así
Argia: Claro
Hasieran: Al principio
Ilundu: Oscurecer
Bilakaera: Evolución
Desagertuak: desaparecidas
Saiatu: Intentar
Aztertu: Analizar
Jatorria: Origen
Sortu: Crear, formar
Jabea: Dueño
Eskualdea: Zona, comarca
Landaredia: Flora
Erabilera: Uso
Gorabeherak: Accidentes (del terreno)
Eraikuntzak: Construcciones
Atzizki: Sufijo
Adierazi: Expresar
Ugaritasuna: Abundancia
Omen: Por lo visto, según parece
Gehienak: La mayoría

Behera egin du Euskaraldiko izen emateak eskualdean

Euskaraldian izena eman duten herritarren kopuruak behera egin du aurtengo edizioan, ekimenaren antolaketa batzordetik azaldu dutenez. Guztira, 330 lagunek eman dute izena gure eskualde zabalean: 255 pertsonek ahobizi gisa, eta 75ek, berriz, belarriprest. Aurtengo edizioan baina 50 pertsona gutxiagok eman dute. Baina oraindik nabarmenagoa da lehenengo edizioarekin emandako aldea, 500 pertsonek baino gehiago eman zuten izena 2018ko lehenengo edizioan.

Euskaraldia Imotz

Eskualdeko Euskaraldiaren bultzatzaileek uste dute izen emate kopuruaren jaitsieraren atzeko arrazoiak askotarikoak direla. Udalerrika, honela joan da izen ematea:

Imotz: 39 ahobizi eta 16 belarriprest (guztira, 55)

Basaburua: 88 ahobizi eta 26 belarriprest (guztira, 114)

Ultzama: 114 ahobizi eta 30 belarriprest (guztira, 144)

Odieta: 14 ahobizi eta 3 belarriprest (guztira, 17)

Euskarazko mintzapraktika taldeak, martxan

AEKtik gogoratu digutenez, martxan dira Euskal Herria osoan mintzapraktika taldeak, baita gure eskualdean ere, hainbat herritan, euskara praktikatzeko maila ezberdinetako herritarrak biltzen dira tabernetan. Ultzama-Larraungo AEK euskaltegian eman daiteke izena, 607 622 102 telefonora deituz edo ***http://emanizena.praktikatu.eus/*** webgunean.

Parte hartzea dohainik da eta euskaltegitik gogorarazi dutenez, hamaika abantaila daude: deskontuak, opariak... eta izena ematen dutenen artean hilero-hilero 10 sari-kutxa zozketatuko dituzte.

Mintzapraktika

Baietz kooperatibak Latasako Biltegia utzi du

Urriaren 30ean egin zuten agur festa, eta, geroztik, itxita dago Latasako Biltegia. Ale honen itxieraren datan oraindik ez da Biltegia hartzeko proposamenik aurkeztu. Azaroaren 30ean izan zen horiek egiteko azken eguna.

Baietz kooperatibak 2019ko abenduan ireki zituen zaharberritutako geltoki zaharraren ateak, eta orain, uzteko erabakia hartu dute. "Zailtasunak zailtasun, ibilbide honetan hazi, ikasi eta gozatu egin dugu zuekin", diote zabaldutako oharrean. Horregatik, urriaren 30ean, igandearekin, herritarrekin batera ospatu nahi izan zuten. DJ Hannibal Selecterrek eta erasoko Jo Ta Su bikoteak jarri zioten musika festari.

Baietz kooperatibako kideak

Berueteko ostatua, Basaburuko pintxo lehiaketako txapelduna

Berueteko ostatua

Azaroaren 19an, 20an, 26an eta 27an izan zen Basaburuko pintxo lehiaketa eta bost partaideren artean, Berueteko ostatuak irabazi du saridunaren mandarra. Bigarrena pasa den urteko garailea izan da, Orokietako ostatua, ondoren Jauntsarasko Apeztegiberriko taberna, Udabeko benta izan da laugarrena, eta, Aizarozko ostatua bostgarrena.

Hiru euroren truke pintxo berezia eta edaria hartzeko aukera zegoen. Probatu zituztenek, ondoren, bozkatzeko aukera ere bazuten.

Goizalde Landabaso
Berria

Badaezpadako horiek

2022ko azaroak 29

Frantzian oso ezaguna da Audrey Tautou antzezlea, eta Amélie film ezagunaren ostean, 2002an batere arrakastarik izan ez zuen beste batean agertu zen: À la folie... pas du tout. Filmak zati bi ditu; batek, Audrey Tautouren istorioaren begirada ematen du. Besteak, berriz, beste protagonistarena. Filma bitxia da baina sakonean badu hizpidea ezar lezakeen abiapuntua: zer da benetan errealitatea? Gure buruan bizi duguna, besteen buruetan dagoena? Errealitatea ez ote da askoren begiradaren osteko hori? Existitzen da errealitatea? Pelikula hau etorri zait burura inguruko batek goizeko ordu txikietan kontatutako istorio bategatik. Lanera joatekoa zen oraindik ere gaua den goiz batean, eta ohiko tokian, okindegiko bazterrean, bere bila autoz pasatzen den lankidearen zain zegoen. Alboan geratu zitzaion gizon bat, zigarreta erretzen. Semaforoa oinezkoentzat libre egon arren gizonak han jarraitzen zuen, bere alboan. Bera gero eta urduriago, telefonoz deitu zuen abisua emateko. Lankidea heldu zenean harritu egin zen gizona hor ikustean, ez baitzen ohikoa. Gauza da egun horretan beharretik bueltan okindegian sartu zela bazkarirako ogia erostera, eta han egin zuela topo goizeko gizonarekin. Okina zen. Hitz egitean argitu zuten goizean gertatutakoa.

Ingurukoak kontatu zidanean jabetu nintzen zein erne gauden emakumeok. Ni ere goizeko ordu txikiegitan ateratzen naiz lanera, eta ateratzerakoan alde batera eta bestera begiratzen dut inor ote dagoen jakiteko. Baldin badago, erne jartzen nauen zerbait mugitzen hasten zait barrenetan. Gauez etxera bidean kaleak husten direnean nik ere aterabideak bilatzen ditut. Badaezpada. Norbait atzetik badator, eta gizonezkoa bada, pasatzen uzten diot. Badaezpada. Jomugara heldu arte ez naiz lasai gelditzen. Honetan okerrena da ez naizela Audrey Tautou aipatutako filmean, emakumeok normalizatuegia dugun bizipena dela.

Alfonso Muguiro Larraya: Baratxuetako zaindaria

Bere etxeko hiru kideek (emazteak eta bi semeek) oposaketekin buru belarri zebilen bitartean, Etsaingo Alfonso Muguirok, 54 urterekin Baratxueta urte berean 100 aldiz igotzeko erronka hartu zuen 2022. urte honetan.

Baratxueta igotzeko aukera asko daude Etsainetik, baina guztiek 600 metroko desnibela daukate. Urtea amaitzerakoan, Alfonsok 60.000 metroko desnibela sartu izango dizkie bere hankei, kilometro bertikal bat 60 aldiz igotzearen baliokidea.

Proiektu honi esker, Alfonsok Etsainetik Baratxuetara igotzeko zenbait bide garbitu ditu. Gainera, Arapahoe izeneko bide berria eraiki du, egungo ibilbide zuzenena Baratxuetara igotzeko, 3 kilometro baino zertxobait gehiago baino ez baitira behar tontorrera iristeko.

Erronka honen helburua ez zen fisikoki prestatzea, baizik eta mendiaz eta gure ingurumenaz disfrutatzea. Hala eta guztiz ere, mendian hainbeste ordu pasatzearen ondorio saihestezina ikaragarrizko maila fisikoa lortzea izan da. Hori baliatuz, Alfonsok 54 urterekin eta lehenbiziko aldiz mendi lasterketetan parte hartu du. Aipagarriena Beriaingo kilometro bertikala izan da, zeinetan 1h 00min 33segunduko marka lortu ondoren, hurrengo urtean ordu bat baino gutxiagoko marka lortzeko mehatxua egin du.

Azkeneko igoera abenduaren 31n egingo du, Patri eta Pistonekin batera, 2022. urte hau agurtuz.

MMM

Alfonso, Patri eta Pistonekin

Pilota goxoko txapelketako finala, abenduaren 23an

Basaburua eta Imozko kirol batzordeak antolatuta, urtero bezala, pilota goxoa txapelketa jokatzen ari da.

Hiru mailatan jokatzen ari dira, guztira, 35 bikote. Lehenengo mailan, 12; Bigarren mailan, beste 12; eta, hirugarren mailan, 11. Partidak Gartzaronen jokatzen dira ostiral, larunbat eta igande arratsaldeetan; eta, Igoan, larunbat arratsaldeetan.

Partidak aurrera doaz eta geroz eta hurbilago dugu txapelketaren amaiera. Finalaurrekoak abenduaren 16an eta 17an izanen dira, Gartzaronen. Ondoren, finalak, abenduaren 23an, Gartzaronen, 18:00etatik aurrera.

Iazko txapeldunak

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak····

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzera eta dastatu gure etxeko frito berriak·

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero·

Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak·

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean·

Asteburuak:
Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta·

Alkozko korua

Elizako erritu nagusiak girotzen hamarkadak daramatzan korua

30 urte baino gehiago daramatza Alkozko koruak kantari, herriko besta, bataio, jaunartze, ezkontza nahiz hiletetan haien ahotsa jartzen. Herritar asko pasatu da urte guzti hauetan elizari lotutako abesbatza honetatik, eta gaur egun ere indartsu dago taldea: 14 lagunek osatzen dute egungo korua. Gehienak alkoztarrak dira, noski, baina hurbileko herrietako kide batzuk ere badituzte

Belaunaldi desberdinetako koruko kideekin bildu gara Alkotzen: Loli Tornaria, Cristina Balda eta Amaia Oiartzunekin. Tornaria da taldean urte gehien daramatzan kidea. 84 urte ditu egun, eta sasoi betean jarraitzen du koruaren zuzendaritza lanetan. Gogoratzen duenez, koruaren hastapenetatik dabil bertan, 30 urte baino gehiago, beraz. "Auzatik hona ezkondu nintzen, eta alabek lehen jaunartzea egin behar zutenean ekimenaren prestaketa lanetan hasi nintzen", gogoratu du. Antolaketa lan horietan hasi bazen ere, gerora, koruan kantatzen hastera pasatu zen. "Larraintzartik Maria Jesus Larraiotz etortzen zen garai hartan erakustera, eta kasik astero entseatzen genuen", dio.

Lehengo eta oraingo belaunaldiak, elkarrekin

Koruaren ibilbide luze honetan, hasierako kideek pixkanaka adinean gora egin dute; horietako zenbait zendu dira azken urteotan, eta beste batzuk, berriz, erretiratzen joan dira. Hala ere, belaunaldi gazteagoentzako ateak zabalik izan dituzte koruan, eta joan da urteotan proiektura jende berria batzen. "Bi baja inportante izan genituen duela zenbait urte, orduan errefortzua eskatu eta gazte hauek animatu ziren", dio Cristina Baldak Amaia Oiartzun eta beste zenbait kideri erreferentzia eginez. "Bai, gu duela bizpahiru urte sartu ginen koruan", gogoratzen du Oiartzunek.

Taldeko hamalau kideen adinari begira jarriz gero, denetik dago: 37 urte ditu gazteenak, Amaia Oiartzunek, eta adinean goiko postuan da Loli Tornaria 84 urterekin. Hor tartean daude beste guztiak. "Duela gutxi arte partaide guztiak Alkozkoak ginen, baina berriki Auzatik eta Urritzolatik ere etortzen hasi dira kide batzuk", diote. Gainera, taldeko partaide finkoez gain, meza-egun bakoitzean jende gehiago ere igotzen da haiekin abestera. "Hiletetara datozen herritarrek edo kanpokoek ere ateak zabalik dituzte abesten laguntzeko. Ez da koru itxi bat, jendea askotan igotzen da, papera ematen diegu eta gu bezala aritzen dira".

Alkozko elizan aritzen dira batez ere, baina azken urtean Gartzaronen eta Ihabenen ere kantatu dute

Peio Etxeberria pilotariaren eta Uxua Diez de Ultzurrunen ezkontzan kantatu zuen Alkozko koruak maiatzean. Jendetza bildu zen ezkontza hartan, eta saio berezia izan zen koruarentzat ere. Bi argazkiotan, kideak ezkontza egunean, Laso eta Ezkurdia pilotariekin

Tornaria eta Baldatarrak, zutabe garrantzitsu

Sofia Balda da gaur egun Alkozko elizako organo-jotzaile ofiziala, Loliren alaba eta Cristinaren ahizpa. Beraren eta amaren artean egiten dute zuzendari lana batik bat, baina Cristinak ere paper garrantzitsua duela azpimarratzen dute kideek, paperak prestatzen eta bestelako lanetan bera aritzen delako. "Bai, bai, hiru horiek [Loli, Sofia eta Cristina] dira koruko inportanteenak, hiru zutabeak", azpimarratzen du Amaia Oiartzunek. Azken hau ere bere amarekin batera ari da koruan; guztira lau ama-alaba ari omen dira elkarrekin kantari.

Alkozko elizan hilabetean bi larunbatetan izaten da meza, eta horietan beti abesten du koruak, batzuetan a capella, baina beste askotan organoaz lagunduta. Duela urte batzuk herritik kanpo ere hasi ziren kantatzen, batez ere eskualdeko beste eliza batzuetan, eta noizean behin ateratzen jarraitzen dute. Duela gutxi, esaterako, Gartzaronen eta Ihabenen izan ziren abesten. "Lehen asko mugitzen ginen, Astrainen eta egon izan gara ezkontzak kantatzen. Organo mugikor bat erosi genuen halakoetarako. Gero, jendeak adinean gora egin ahala, erabaki zen herritik ez ateratzea. Baina orain gazte asko baditugunez, gogoz bagaude mugitzen gara", azaltzen dute.

Desberdintasunik egin gabe, guztiei kantatzen dien korua

Horixe da Cristina Baldak Alkozko koruaz azpimarratzen duena. "Inoiz ez diogu inori ezetzik esan. Bataioa dela, edo hileta... guretzat pertsona guztiak dira igualak", dio. Hiletetan, zenbait herritan koruak batzuetan bakarra abesten du, hildakoaren arabera. Haien kasuan, ordea, guztiei kantatzen diete, hildakoa edonor dela ere. "Hiletetan eskatu gabe ere kantatzen dugu, beti-beti", dio. Balio erantsia ematen dio horrek koruari, kidearen ustez.

Musutruk funtzionatzen du koruak, alegia, saioengatik ez dute ezer kobratzen. "Por amor al arte esaten den bezala egiten dugu guk, nahiz eta gero familiek asko eskertzen duten, batzuek diruarekin, beste batzuek aperitibo batekin...". Doanik egiten dute horrela nahi dutelako, eta onartzen dute saioen ondoren maiz jasotzen dituzten eskertza mezuek beste edozerk baino gehiago balio diela.

> "Familiek asko eskertzen digute haien senideen ezkontza edo hiletetan kantatzea"

Gizonezkoen faltan

Behin eta berriz azpimarratu dute koruko kideek kantatzea gustuko duen edonorentzat zabalik dituztela ateak. Egungo partaideekin harremanetan jartzea besterik ez dute horiek. "Beti erraten dugu, gu oso gustura jende berria hartzeaz!", diote. Edonor ongi etorria izanen dela diote, baina azken urteotan koruan gizonik ez dagoela eta, bereziki horiei egin diete gonbidapena. "Hasieran baziren lau gizon, pena da orain inor ez egotea. Gizonen bat gurekin abestera igotzen denean, sumatzen da", diote.

Ziaurrizko pestak

Taloak prestatzen Gerendiainen

Maite Larretxea, Marina Cueli, Maider Sarrias eta Maialen Contin, Ziaurrizko pestetan

Taloak prestatzen Gerendiainen

Lizasoko herritarrak, pestetan

Errondan, mozorrotuta, Lizasoko pestetan.

Gazteak mozorrotuta, Lizasoko pestetan.

Tokikom

Hamarkada bat tokikoak saretzen

Euskarazko komunitate zabalarentzat erreferentziazko komunikazio talde izateko helburuarekin sortutako Tokikom-ek, euskarazko tokiko komunikabideen sareak, sorreraren urteurrena ospatu du azaroaren 11n ArantzazuLABen. Egindako ibilbidea aitortu eta bazkideen aniztasuna txalotu dituzte ekitaldian. Tartean, baita Pulunpe, Esan Erran eta Amezti ere. Han izan ginen Ultzamaldeko hedabideetako langileak.

Euskararen normalizazioaren bidean hamarkada oparoa izan zen 1980koa, orduan sortu baitziren herri askotan euskara elkarteak eta euskararen erabilera sustatzeko lehen herri aldizkariak. 90eko hamarkadan etorri zen jauzia, 40 elkarte inguruk euren tokiko komunikabideak sortu zituzten eta. Hego Euskal Herriko elkarteen eta tokiko komunikabideen indarrak batu eta arazoak elkarrekin konpontzeko helburuarekin sortu zen, 1993an, Euskaltzaleen Topagunea, eta, haren baitan, Hedabideen Saila ere martxan jarri zen.

Sektorearen behar bereziei modu eraginkorragoan erantzuteko beharrak, ordea, Hedabideen Sailari izaera propioa ematea eskatzen zuen, eta horren ondorioz sortu zen Tokikom, 2012an.

Komunikazio Taldea

Hasieran tokiko komunikabideak taldekatzeko marka gisa sortu bazen ere, egitasmo trinkoa eta indartsua da hamar urteren ostean. Egun, 28 bazkidek osatzen dute Tokikom Komunikazio Taldea, eta, guztira, 76 hedabide kudeatzen dituzte: 32 webgune, 28 aldizkari, 5 telebista eta 9 irrati. Hain zuzen, 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan eta Euskal Herri osoko 307 udalerritara iristen dira.

Elkarrekin indarrak batu eta eraginkorrago izatea da Tokikomen helburu nagusietako bat. Horrela, Tokikomek, besteak beste, bazkideak finantzatzeko publizitatea saltzen du, aholkularitza eskaintzen die eta teknologia aprobetxatuz bazkideendako lagungarri izan daitezkeen tresnak garatzen ditu. Horregatik, Pulunpe, Esan Erran eta Amezti bultzatzen dituen Ametza Kultur Elkartea ere bazkidea da.

Tokikom Sariak

Urtero antolatzen ditu Tokikom sariak komunikazio taldeak, bazkideen lan hoberenak nabarmentzeko. Aurten, hamargarren urteurrena ospatzeko, bereziak izan dira. ArantzazuLABen izan ziren azaroaren 11n, eta bazkideak saritu dituzte, tartean, Ametza Elkarteko hiru hedabideak. *"Zailtasunak eta oztopoak gainditu, **neurri txikiko baina eragin handiko komunikazio proiektuari** eusteagatik, **multimediaren** aldeko apustu sendoa eginez eta **gertuko komunitatea ardaztuz"**,* izan da epaimahaiak azpimarratutakoa.

Sari banaketa, gainera, bazkideen arteko topaketa egiteko aitzakia ere izaten da. Han Euskal Herriko tokiko euskarazko hedabideen kideekin egoteko aukera izan zen, tartean, ezagunak ditugun Nafarroako Xorroxinekoei edo Guaixekoei aurpegia jartzeko ere bai.

Bere bazkide guztiak saritu ditu Tokikomek, bere 10. urteurrenean, elkarrekin egindako bidea omenez

Basaburuan
ehizalariak

Ehizilari txapelduna

Udazkena, ehiztariendako garai politena. Hor dabiltza gure alderdiko ehiztariak, batzuetan bakarka, beste batzuetan taldeka. Oilagorrak direla edo usoak direla. Baina batez ere basurde ehizan, taldeka.

Azaroaren hasiera eta Basaburuan basurde ehiza.

Itsasoko **Azpikotxeko** Bautixte Auzari ere gustatzen zaizkio ehizaldi hauek eta Jabier semeari hala esan zion:

-***Gaur ni ere joan bea'it.***

Hala, Beramendiko pinudira abiatu zen taldea eta ehiza tokira hurbildu zirenean Jabierrek, ehiztari nagusiak, postuak banatu zituen eta aitari esan zion:

-***Atte, jar zatte zu goittiko punten. Eta erne!***

Eta han jarri zen Bautixte, gainerako ehiztari guziak bezala zain, isil-isilik.

Zakurrak bota eta denak erne, mugitzen ote zen basurderen bat.

Eta hara non azaltzen zaion Bautixteri zekor bat adinako basurde tzar bat.

-***Eta zuk ze in ziñun?*** –galdetu nion.

-***Ze in bia'nin? Apuntatu eta tiro! Seko bota yun; aztarrike haundiik e'tzin in!***

Bai, horrelako kontuak maiz izaten dira, baina badakizue? Bautixtek 88 urte beteak ditu eta sasoi eta gogoa behar izaten dira. Eta Bautixtek horiek denak izan! Eta begi zorrotza eta apunteria ikaragarria gainera. Bautixtek urteak baino basurdeak kilo gehiago pisatuko zuen.

Horregatik diogu ehiztari txapelduna dela. Ea honen markara ailegatzen den beste inor badugun gure alderdian. Guk ez dugu ezagutzen behinik-behin.

Ez zaio inori gogoratu ikur bat, kopa bat eta zer edo zer ematea txapeldun handi honi?

Beti bezala, Bautixte irriz-irri. Ez dadila itzal

Etxalekuko notario edo eskiraua

Umeek ere eman zuten esatekoa

Esteban Gazteluk izan zituen hamar umetatik, lau ttiki-ttikitan hil zitzaizkion, dirudienez, zaharrena zen Catalinarengandik hasita. Sei izanen ziren aurrera aterako zirenak.

Zinez, familia ez zitzaion gain-gainekoa atera. Etxe aberatsean jaiotakoak, sobera ongi haziak, dirudienez (Etxe honetan bazuten mutila, bazuten artzaina eta izaten zituzten neskameak)

Bigarren umea, mutikoa, Miguel Antonio, urte luzez Notario izateko ikasketak egiten ari izan eta Ameriketara joan zitzaien, ez bere gurasoen gustuz, noski. Horrela jartzen du eskrituretan: **sin embargo de aver gastado en su educacion crecidas cantidades passo a la America.**

Osaba bat ere bazuen edo izan zuen Ameriketan, Jose Antonio Gaztelu.

Nolanahi gisa, urte gutxi egin zituen Indietan, 30 urte bete baino lehen Etxalekun baitzen atzera, eta hemen bizitu zen.

Behin, 1749ko otsailaren 2an edo, Ibarreko almirantearekin (1) Arraratsa joan zen Basaburua-Imozko Alkatearen jakinarazte batekin eta gero arratsean ostatuan gelditu eta borrokan ibili eta, arrarastarrak mendean hartu eta zauritu zituzten. Ez zitzaien debalde atera, kolpatutako bat Arrarasko alkatea baitzen, Juan Gastearena. Baina, ematen duenari hartzea ere tokatzen zaio eta handik hiru urtetara, berriz, Etxalekun bera, Miguel Antonio, zanpatu zuten. **Etxandiko** Juan Antonio Zigandak eman zion berealdiko eultzia eta zauriturik utzi. Hil, Burlatan hil zela badakigu, 1780ko abenduaren 28an, 61 urtetan, baina zertan edo zergatik zen Burlatan ez dakigu.

Bi alaba, maister batzuekin ezkondu zitzaizkien eta ezkontza hauek ere ez ziren batere gurasoen gustukoak izan, ez horixe, berek aipatzen baitute etxea semeari utzi ziotenean: **cassaron a su arbittrio sin saviduria volunttad ni consenttimientto de sus padres**. Etxekoei aurretik esan gabe!

Hala ere, Notarioak Jacinta eta Maria Josefak hartu zituzten senarrekin batera, hau da, Pedro Arangoa eta Bartolome Perotxenarekin, aterpetu zituen bere bi etxetan, **Txurdanean** eta **Goitikoetxean**. Jacinta 19 urtetan ezkondu zen, gaztetxoa, baina Maria Josefa ez, 24 urte baitzituen. Eta esan beharra dago ez zirela zirkunstantziek behartua ezkondu beren borondate osoz baizik, etxekoen nahien kontra.

Biak hala biak, 11na ume izan zituzten. Denak Etxalekun.

Hurrengo umea Martin Manuel, etxerako izan zuen Berueteko **Apeztegiko** Graciosa Apeztegia Perkatzekin ezkonduz 1759an. Dote ederra ekarri zuen Marimigelenera, 400 dukat, bi kutxa, goatze jantzi bat, zilarrezko ontzia eta, erregaloz, ergitx bat.

Martin Manuelek ere izan zituen ba auzi kontu zenbait: bat, **Txurdanean** eta **Goitikoetxean** zituen bere bi arreben kontra, etxeen errentak kobratu eta seniparteak ordaintzeko orduan. 19 urteko auzia izan zen (Aitak hasitako pleitua izan zen hau)

Gero herriarekin ere auzi mingotsa izan zuen, larrainetik eultzi garaian pasabidea eragotzi nahi izan baitzuen.

Bizirik atera ziren sei haurrideetatik azken aurrekoa Francisca Angela izan zen, 1730. urtean sortua. Honen kontuz, beherago idatzi dugu.

Eta denetan gazteena, Francisco Javier, apeztu eta Itsasoko apez izan urte luzez, 1763 eta 1800 bitartean, 67 urtetan hil zen artio.

Etxaleku ekialdetik.

Apez izateko ere dirutza utzi behar izan zuen Marimigelenek 250 dukat eta **Txurdanea** zenbait lurrekin (Apez izateko ondasunen jabe izan behar izaten zen, bere bizia ateratzeko adinako ondasuna)

Don Francisco apezak ere, izan zuen ba pleitu bat gutxienez; eta ez nornahirekin, bere koinatua zen Pedro Arangoarekin alajaina, Txurdanean maistar zegoenarekin. Gainera, dena korapilatzeko, honen alaba gaztetxo bat zuen etxean, Itsason.

Apezak eman zion pleitua Arangoari, **Txurdanea** berea izanik ez zizkiola errentak ordaintzen eta. Bost urteko errentak eskatzen zizkion, 16,5 dukat urteko. Hori horrela, Pedrok ere bere arma guziak atera zituen: Txurdanean obrak egin zituela bere kontura, 31 kantaro ardo ekarri zizkiola apezari, hainbat aldiz dirua utzi zuela Marimigelenean, prestamoz, eta horiek hartzekoak zituela. Alde batetik eta bestetik erreklamazioak.

Lehen sententzian apeza kondenatu zuten 252 peso eta 7,5 erreal pagatzera. Eta bigarrenean, berriz, Pedro Arangoa, errentak ordaintzera, 113 peso eta 3 erreal. Denetara, nolanahi gisa, galtzen atera zen apeza, diferentzia 139 peso eta 4 erreal baitziren.

Txurdan

Oharrak

(1) Ibarreko almirantea edo alguazila, Miguel Antonio Lantz zen, Lanzko* Lerdeneko *semea eta Etxalekun zirujau zegoena.

Francisca Angela Gaztelu eta Zorrobiaga Lezaun

Angela ere ez zen atzean gelditukо. Emanen zuen solasbidea 1730. urtean jaio zen nexkatoak.

Neskatxetan, 27 bat urte zituela, etxean zuten mutilarekin endredatu zen, Auzako Pedro Igoa, **Martzeneko** semearekin. Haurdun gelditu eta haurra jaio baino lehen Egillorren (Beasoain) zuen izebarengana joan zen eta handik, haurra izatera, Iruñera. Neskato bat izan zuen.

Mutilak auzia eman zion, berarekin ezkon zedin, ezkon-hitza eman ziola eta. Baina, ez dakigu ongi zergatik, baina ez zuen ezkondu nahi izan Angelak, etxekoek ez zutela nahi eta aitzakiaz. Nolanahi gisa, Pedro ere ez zen lo zegoena dirudienez, auzian zebiltzala Lizasoko **Ortxan** alabarekin zebilen-eta. Eta, bi aukerak utzi eta laster ezkonduko zen Urritzolako **Dorreko** alaba batekin.

Angelak ez zuen nahi izan edo ez zuen gustukorik topatu eta 33 urtetan, ordurako urtetsua, bere anaia apezarendako joan zen Itsasora, zerbitzari, 1763an. Eta 1765. urtean, San Antonetan, negu gordinenean, hara non agertu zitzaizkion bi lehengusu, beren atzetik zebilzkiola, **Apezetxean** noiznahi, su-egurra eramatera, kartetan aritzera... beti bazen aitzakiaren bat. Lehengusu pare horietako bat **Zurgiñeneko** Antonio Iriarte zen eta horretaz gustatu eta haurdun gelditu zen Angela.

Antoniok, ezkon-hitza eman bai, baina gero ezkondu nahi ez, eta Angelak pleitua eman zion. Auzian kontu franko ateratzen dira, batzuk bitxi xamarrak.

Antoniok Angela gaizki jarri nahi, baina batez ere ez ziola ezkon-hitza eman eta Angelak, berriz, baietz eta baietz, eta bere lekukoek ere nire ustez nahiko garbi utzi zuten ezkon-hitza eman ziola behin baino gehiagotan, baina auzia galdu zuen. Antonioren lekukoak sinesgarriagoak? Baliteke, baina nire ustean aipatzen ez den kontu bat ez ote dagoen tartean nago. Angelak 35 urte zituen eta Antoniok 26. Ez ote zegoen hor gakoa auzi honetan Angela galtzaile ateratzeko?

Dena dela, lehenbiziko aldiz haurdun gelditu zenean, Angela ezkondu nahiz ez. Bigarren aldian, gauzak bestaldera izan ziren, Angela ezkondu nahi eta gizongaia ezezkoan.

Tx

Hiztegia

Jorratu: escardar.

Ibarra: Valle

Jakinaraztea: notifikazioa

Berealdikoa (bealdikoa) handia

Eultzia=ultzia=jipoia

Ergitxa=miga

Auzia=pleitua

Senipartea: herentziaz ume bakoitzari tokatzen zaiona.

Eragotzi: impedir

Ezkon-hitza=ezkontzeko hitza

Lekukoa=testigua

Lokuzioa

Gain-gainekoa: superior

Marimigelenea, goitik aterata.

Juanbeltz gaztandegia

Munduko gazta txapelketa entzutetsuan brontzea irabazita

Urteak daramatza Berueteko Juanbeltz gaztategiak nazioarte mailako World Cheese Awards sarietan parte hartzen, eta aurretik ere irabaziak ditu zenbait sari. Aurtengo txapelketa igaro berritan, brontzezko domina eskuratu dute Juanbeltztarrek. Hain zuzen, gazta ketuen kategorian eskuratu dute domina

"Lan handia dago saritutako gaztaren atzean, eta beraz, poz eta ilusio handia egin digu sariak". Horrela azaldu zuen Asier Juanbeltz gaztategiko semeak mundu mailako gazta txapelketa irabazi berritan sentitu zutena. Galesen jokatu da aurtengo gazta txapelketa, eta munduko 40 herrialde desberdinetako 4.000 gazta izan dituzte esku artean. Ardi gazta ketuen kategorian irabazi du brontzea Berueteko gaztategiak.

"Hiru hilabeteko gazta da saria irabazi duena, gazta nahiko berria beraz. Urte osoan joan gara ikusten eta genituen gazta onak aukeratzen, gero on horien guztien artean dastaketa egin eta onena ketzeko", zioen Juanbeltzek irratian egindako elkarrizketan. Behin gaztarik onena hautatuta, ketzeko prozesuak ere garrantzia handia duela kontatu zigun.

Lehengo eran ketuta

Ketzea nola egiten dute galdetuta, honela azaldu prozesua gazte beruetearrak: "Gelatxo txiki bat izaten dugu ketzeko. Lehenbizi sua egiten dugu, brasa handi bat lortzeko, eta behin brasa hori prest dela, egur freskoa botatzen diogu". Brasa hori gaztak dituzten gelatxoan sartzen dute segidan, eta gaztagileak dioenez, nahitaezkoa da ketze prozesuan erabat gainean egotea. "Alde bat egiten dugu lehenik, eta gero buelta eman behar zaio, gazta osoa berdin ketzeko. Erabat gainean egon beharra dago, zein kolore hartzen doan begiratzen... beti erne".

Baina, munduko gaztarik onenak baloratzerakoan, epaimahaiak zein irizpide izaten ditu kontuan? Kanpoko eta barruko itxura, kolorea, usaina, momentuko zaporea eta gerora uzten duena... "Behin kanpoko eta barruko itxura epaitzean, puska txikitan moztu eta probatzen jartzen dira. Ketu kategoriaren kasuan, ketu zaporea nolakoa duen ere baloratzen dute", gehitu du Juanbeltzek.

Asier Juanbeltz

Juanbeltz gaztandegiak aurretik irabazitako sariak

Aipatu bezala, dena den, aurtengoa ez da Berueteko gaztandegiak World Cheese Awards txapelketan sariren bat irabazi duen lehen aldia. 2011n irabazi zuen lehenengoz brontzezko domina, eta geroztik, edizio dezentetan izan dira sarituak:

- **2011**n: brontzea
- **2012**an: urrea
- **2013**an: urrea
- **2017**an: brontzea
- **2019**an: bi kategoriatan sariak, zilarrezkoa batean eta brontzezkoa bestean
- **2022**an: ketuaren kategorian brontzezkoa

Geren izena ere galdu dugu?

Aitzin horretan Iraizozko **Dorreko** Pako hil zaigu: Pako edo Francisco. Horrelakoetan Pulunpeko **Jaiotzak atalean** izen ofizialaren alde egiten dut: Francisco, Juan, Pedro, Luis...

Baina, hara zer esan zidan hilaren adiskide batek:

-Hi, jar ezak Pako, ez zitzaioken Francisco deitzea gustatzen.

Francisco ez zitzaiola gustatzen? Jarri Pako eta kitto. Denok konforme eta hila gehiago.

Bai, norberak bere izena izateko dretxo osoa du.

Patziku Perurena goizuetar leitzartua, Leitzara mutiko koxkorretan etorri eta denak Patxi esaten hasi; eta idazle famatua bihurtu eta hara, barne-barnean zeramana, agertu zuen idatziz behin:

-Ni jaiotzetik beretik Patziku izan naiz eta zergatik deitzen didate Patxi? Hemendik aitzina Patziku sinatuko dut eta eskertuko nioke jendeari nire izenez ezagutuko balit.

Bai, kosta izan zaio jendeari ohitura aldatzea, baina Euskal Herri osoan Patxi zen hura Patziku bihurtu da.

Horrela dira gauzak. Denok badugu geren izena, edo izenak. Bakoitzaren izena dela eta, errespetua zor izaten da.

Euskararen gainbehera dela eta, Basaburuan orain 30 bat urte, hara non entzuten diodan zinegotzi gazte bati, **basaburutarra** aipatzen.

-Hi, nondik atera duk **basaburutarra** *hitz zikin hori? Ez nian inoiz entzun. Beti basaburuarrak izan gaituk eta hala izanen gaituk gainera.*

Harrigarria benetan! Pertsona bati entzun nion behin pentsatuz ez nuela inoiz gehiago entzunen. Geroztik, zenbati ez diet entzun basaburutarra izen oker, aker eta aldrebes hori?

Izena ere galdu dugu? Errespetua ere saldu ote dugu ba? Hala dirudi, izena galtzen duenak izana ere galtzen baitu. A zer "euskaldunak" gauden eginak! Euskalkaitzak askotan; erdaldun espainolak gehienetan. Bekatu batek bestea dakar, dena usteldu artio. Ardoa ozpindu artio.

Udalak ez dezake zerbait egin? Eskolak ez luke zerbait egin behar horrelako kasuetan? Guraso gazteek ez dute hor egitekorik? Hasi, zerbaitetatik hasten da. Hitzekin eta izenekin lehenik. Agian, haurrak zuzentzen hasteak ekar lezake guraso gazteak beren haurrekin euskaraz entzutea. Basaburuarrok, zergatik ez egin proba?

Txurdan

Hiztegia

Jorratu: escardar.

Basaburutarra Zuberoako eskualdeko bati deitzen zaio, baina Nafarroako Basaburua udalerrikoari, basaburuarra

Atala: seccion

Aitzina=Aurrera; Baina, kontuz: antzina: antiguamente.

Zinegotzia: Kontzejala.

Euskalkaitza: euskaraz gaizki aritzen dena, kiskun kaskun.

Basaburuarrak Muizko bidean. Gurutze pareren falta da noski (2013)

Harrijasotzea

Maika Iraizoz: "Emakumezko gutxi ikusten diren kirolak bultzatzea gustuko dut"

Duela hilabete gutxi jakin genuen Maika Iraizoz eltzaburuarra herri kirolen munduan murgildu dela, hain zuzen, harrijasotzen. Errugbian urteak egin ondoren, kirol berri horretan bere burua probatzen hasi da orain. Azaldu digunez, herri kiroletan geroz eta emakumezko gehiago ikusten bada ere, harrijasotzearen kasuan, Nafarroan, oraindik bi emakume besterik ez dira ari.

Errugbian ezagutu zintugun guk. Nola iritsi zara herri kirolen mundura?

Ultzamako eskolan hamar urte daramatzat herri kirol eta errugbiko irakasle, eskolaz gaindiko jardueren barruan. Lehenagotik sokatira eta herri kirol konbinatuak probatuak nituen eta gustatu zitzaizkidan, baina errugbian ari nintzenez, ez nuen horretan hasterik izan. laz, ordea, errugbiko azken denboraldia eginen nuela erabaki nuen, erronka berriak jarri nahi nizkiolako nire buruari. Eta, aldi berean, Irurtzunen entrenatzen duen harrijasotzaile batek esan zidan berarekin entrenatzen hasteko. Horrela hasi nintzen.

Ez da ohikoena harrijasotzea emakumezkoen artean, ezta?

Tira, geroz eta emakumezko gehiago ari dira honetan, baina batez ere Gipuzkoan, han modan jartzen ari da. Crossfit-ean badago ariketa bat pisu handiko baloi moduko batekin egiten dena, ez da harria, baina horrekin hasi dira asko. Gainera, herri kirolen eta crossfit-en arteko lehiaketak ere antolatu dituzte han, eta jendea kirol batetik bestera pasatu da, horrela ari da herri kiroletara jendea iristen, crossfitetik.

Iltzarbeko festetan atera zen plazara lehenengoz

Herri kirolak nahitaez tradizioarekin lotzearena aldatzen doa, beraz?

Bai, eta herri kirolak egiten dituztenen gorputzak ere aldatuz doaz, orain gehiago dira gimnasioko gorputzak. Geroz eta gehiago dira kirolari bere osotasunean eskainitako pertsonak, eta ez harriari bakarra. Gainera, gimnasioko kirolak ere geroz eta gazteagotik praktikatzen hasten dira gazteak gaur egun, eta hori ere nabari da.

Eta zergatik aukeratu duzu zehazki harrijasotzea?

Atentzioa eman zidan harrijasotzeak, eta hainbeste emakume ikusten ez diren kirolak

egitea eta bultzatzea gustatzen zait. Errugbian hasi nintzenean ere ez ziren emakume asko ikusten, orain gehiago normalizatu da. Herri kiroletako zenbait kirol, ordea, oso maskulinotzat hartzen dira oraindik, eta horri buelta ematea da nire helburua. Oraindik askok esaten didate harrituta: "Harrijasotzen, zu?". Bada, bai, zergatik ez ba? Eta azazkala pintatuekin aritu nahi dudala harrijasotzen, bada, zergatik ez? Bakoitzak nahi bezala!

Oraindik aurreiritzi asko daudela sumatu duzu orduan?

Bai, bai. Donezteben nirekin harrijasotzen aritu zen neskak esan zidan bere entrenatzaileak lehen ez zituela emakumezkoak entrenatzen, 'asko kexatzen zirela' esaten zuelako. Bada, horregatik ere gustatzen zait kirol hau: herri kiroletako beste modalitate batzuetan neska gehiago ikusten da, baina indarrarekin lotutako beste hauetan gehiago kostatzen da. Nik ez dut mutil baten pare egin nahi, nahi dudana da neskok ere harrijasotzen aritu gaitezkeela erakustea!

Nola izaten dira entrenamenduak?

Nire kabuz gimnasiora joaten naiz astean behin, eta saiatzen naiz mendira ere joaten, oinez, lasterka... alde aerobikoa ere lantzeko. Eta, entrenamenduei dagokionez, alde teknikoa ari naiz lantzen batik bat. Ordu beteko edo ordu eta erdiko entrenamenduak izaten dira, harria jasotzen aritzen gara, eta teknikoki zuzentzen aritzen zaizkigu. Alde fisikoa eta teknikoa uztartzen dugu, azken batean. Orain teknika irabazten ari naizela, alde aerobikoa ere gehiago sartzen didate: hiru minutuan ahalik eta altxamendu gehien egitea, adibidez.

Eta zein motako harriarekin ari zara?

Momentuz, harri biribilarekin ari naiz soilik . Gizonezkoen mundu bat izatearekin, Nafarroan dauden pisuak gizonezkoentzakoak dira, eta ez dago niretzako harririk. Dena dela, entrenatzen dudan taldea erraztasunak ematen ari zait, orain niretzat eta beste kide batentzat bolak sortzen ari dira, entrenatzeko aukera izan dezagun. Harri zilindriko bat egiten ari zaizkigu, eta bestelakoak ere eginen dizkigute aurrerago.

Udan eman zenuen plazarako saltoa. Zer moduz sentitu zinen?

Lehendabiziko plaza Iltzarbeko festetan izan nuen, Olloko bailaran. Urtero mutil bera joaten zen harrijasotzera, eta nire berri izan zutenean gonbidatu egin ninduten. Sentsazio oso ona izan nuen han, plaza guztiak animatzen ninduen... egia da, neskak ikusten dituztenean gehiago animatzen dutela, asko ere ez gabiltzanez eskertzen dutelako. Ez dut lehiatu, Nafarroan ez dagoelako lehiaketarik eta EAEkoak pisu handiagoko harriekin direlako. Baina irailetik hona hiru plaza egin ditut: Iltzarben, Berriozarren eta Rocopoliseko urteurrenean, eta denetan oso gustura aritu naiz.

Udazkena

Onddoak, udazkeneko harribitxiak

Edurne Gerendian Goñi basozaina Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioko kolaboratzaile berria da. Hilero ingurumenarekin zerikusia duen gai bat aukeratu eta bitxikeriak bilduko ditu. Pulunpen ere agertu nahi dugu gure irratian kontatzen duen informazio interesgarria. Lehenengo honetan, udazkeneko ekinozioaz eta hain preziatuak diren onddoei buruz hitz egin digu.

Udazkeneko ekinozioa irailaren 23an hasi zen gure ipar hemisferioan 03:04an. Ekinozio hitza latinetik dator eta "gau berdina" esan nahi du, hau da, 12 ordu inguruko eguna eta gaua. Urteko bi momentutan bakarrik daukate iraupen bera egunak eta gauak: ekinozioetan. 2022an, urtaro horrek 89 egun eta 21 ordu iraungo ditu gutxi gorabehera, eta abenduaren 21ean amaituko da negua hastearekin batera.

Eta zer gertatzen da urtaro honetan?

Basoan fruituak heldu dira eta biltzeko garaia da. Udazkena animalia askoren ugalketa unea da, oreina kasu. Hilabete honen amaieran hegaztien migrazioak ere ikusten ditugu, hotza datorrela adierazten diguten antzaroi eta kurriloena, adibidez. Baina honetaz beste batean hitz eginen dugu.

Edurne Gerendiain Goñi dugu kolaboratzaile berria, basozaina, Parke Mikologikoan urteetan lan egin du

Gure bailaretan, patxaranerako basaranak biltzen ditugu. Patxaranak herrietako festetan laguntzen du. Edari hori oso errotuta dago, baina orain beste likore batzuk edaten dira.

Gaztainen garaia ere bada, eta, nola ez, gure boletus preziatuarena. Eskualdean onddo beltza deitzen diogu gehien estimatzen dugun onddoari, baina onddo zuria ere badugu, beste batzuen artean.

Ezer baino lehen, zer da onddoa?

- Norbaitek esango zizun mendian gauza zuriak ikusten dituzunean, belaki zuri bat, onddoak aterako direla. Ez du arrazoirik falta. Zuri horri mikelio deitzen zaio, eta onddoei elikatzeko balio diren hari-erro baten antzekoa da.

- Onddo hauek basoaren *interneta* osatzen dute, sare inteligentea. Zuhaitzen sustraien inguruan eta barruan bizi baitira, zuhaitzari ura eta elikagaiak lurretik lortzen laguntzen dute (nitrogenoa, fosforoa) eta mineralen truke onddoa bizi ahal izateko.

- Landareak ezin dira mugitu elikagai bila, animaliak bezala. Ordez, onddoei esker egiten dute. Sinbiosia deitzen zaio horri.

- Elikatzea bakarrik ez, onddo horien funtzioa zuhaitzak babestea ere bada, beste onddo batzuek sortutako gaixotasunetatik babestea.

Egun Ero irratsaioko kolaborazioa entzun, osorik, Esan Erranen

> **Onddoek informazioa trukatzen laguntzen die basoko landareei. Pertsonen babeserako ere erabili izan dira, antibiotikoak garatzen ahalbidetu baitute.**

Alexander Flemingen zepatik garatutako bacteria (CABI)



Basoko sarea

Lehen aipatu dugun sare honek, micelio deiturikoez osatuta, basoko zuhaitz eta landare guztiak konektatzen ditu, nahiz eta espezie berekoak ez izan, eta haien artean sustantziak eta mantenugaiak trukatzeko aukera ematen die. Hilko diren zuhaitz zaharrenek mineralak askatzen dituzte sare honetan, gertu hazten ari diren zuhaitz gazteek aprobetxa ditzaten.

Internet honek, gainera, aukera ematen die elkarri ohartarazteko, intsektuen erasoak jasaten dituztenean, adibidez. Horrela prestatzen dira, eraso horien aurrean babesteko sustantziak sortuz.

Beraz, gure basoetan ezinbestekoak dira.

Perretxikoen bidez ugaltzen dira, hain zuzen ere horixe jaten dugu egun hauetan etxean. Perretxikoa lorea eta botatzen dituzten esporak fruitua dela esan genezake.

Boletus edulis. Egilea, Manuel Becerra. Parke Mikologikoko webgunetik hartua

Onddoak, sendagaia

1928an, Alexander Flemingek lizun bat hazi zuen laborategi batean, ustekabean, eta gaixotasunak eragiten zituzten bakteria batzuk hiltzen zituen sustantzia bat sortzen zuela jakin zuen. Penizilina aurkitu zuen.

Penicillium notatum izeneko onddo horrek antibiotiko multzo bat garatzea ahalbidetu zuen, eta aurkitu arte hilgarriak izan zitezkeen infekzioak tratatzeko erabiltzen ziren. Howard Walter Florey farmakologo australiarrak eta Ernst Boris Chain biokimikariak penizilinaren azterketa egingo zuten Flemingekin, tratamendu erabilgarri bihurtzeko. Ikerketa horiei esker, hirurek Medikuntzako Nobel Saria irabazi zuten 1945ean.

Eskualdeko egileak, Durangon

Hilabete honetan jai eman diogu Ultzamako gure liburuzainari, eskualdetik at irteralditxo bat egiteko. Gurean ditugun egileek gauza berriak sortu baitituzte, eta hona ekarriko dizkizuegu. Dena den, lasai, hurrengo hilabetean liburutegiko nobedadeekin eta gomendioekin itzuliko zaigu Patxi Irurtzun.

Kixkur, Pinttoren arreba (2022)
Astiz Martinez, Iñigo / Valverde Tejedor, Mikel

Deskripzioa

Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek, "Pintto, Pintto, gure txakurra da ta, Pintto, Pintto bere izena du", bazuen arreba txiki bat Kixkur izenekoa. Hau da bere istorioa.

Horixe da Iraizozko Iñigo Astiz Martinez kazetari eta idazlearen azken argitalpenaren fitxa teknikoa. Abenduaren 8an, Saguganbaran aurkeztu zuten.

Iñigo Astizek Eltzaburuko Maite Mutuberria Larrayoz ilustratzailearekin 2019an ateratako ***Joemak eta Polasak;*** ***eta, 2020an, Leire Salaberria Urdanpilletarekin argitaratutako Haserrea*** ere izanen dira Durangon.

Argitaletxea: Elkar

10 €

Bilduma: Ipuin Ilustratua

5-6 urte

Irrimola: liburu biribila (2021)
Mutuberria Larrayoz, Maite

Deskripzioa

Poza biribila da, barruan daramagun zurrunbiloa. Leunki ateratzen da maiz. Beste batzuetan, ordea, xirimolaka kanporatzen dugu, irri eta algaraka.

Euskadi Saria irabazi du Maite Mutuberria eltzaburuarrak Irrimolarekin, aurten. Uxue Apaolaza, Leire Bilbao, eta Irati Jimenez beste irabazleekin batera, euskarazko literatura nazioartekotzearen inguruko mahaingurua egin zuten abenduaren 10ean, Talaia gunean.

Gainera, Katxiporretarako ilustratutako eta Julio Sotorekin egindako ***Amaren Intxaurrak (2020);*** marrazkiak jarri zizkion eta Euskadi Saria jaso duen Leire Bilbaoren ***Barruko Hotsak (2021);*** lehen aipatutako ***Joemak eta Polasak (2019);*** eta, Giani Rodarirekin ateratako ***Istorioen Zooa (2021)*** ere izanen ditu Durangon.



Argitaletxea: Ikaselkar

19.5 €

Bilduma: Kuku!

Emozio bilduma

Ostadar 7310 (2022)
Ibarra Alonso, Iñigo

Deskripzioa

Ostadar 7310 izeneko «planetan» bizi dira gizakiak. Zeru koloretsu baten pean eta marraz ongi zehaztutako metal koloreko lur soil eta amaigabe batean. Ozeanoa bezalako zerbait da. Androideak gizakien laguntzaileak dira.

Dena da ederra eta zoragarria, H57 izeneko androide batek protagonistaren bizitza hankaz gora jarriko duen arte. Ezusteen kateak ez du atsedenik, jakin-minak bezalaxe. Orrialdez orrialde harrituko zaitu.

Era berean, datorkigun balizko etorkizunaren alarma izan nahi du eleberriak.

Argitaletxea:

Denonartean

16 €

2022ko urria

2022ko urrian *gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak*

Jaiotzak:

Guk dakigula, urrian ez da jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

Guk dakigula, urrian gure alderdiko inor ez da ezkondu.

> *Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna.*

Heriotzak:

BASABURUA
Jauntsarats
Gregoria Azpirotz Rekondo, **Martikoneko** alaba, urriaren 28an hil zen, 102 urtetan.

Gregoria Azpirotz

ULTZAMA
Alkotz
Francisco Sala Elizondo, Paco, **Baldako nagusia**, urriaren 12an hil zen, 91 urtetan.

Paco Sala

Zorionak Zorionak !

Zoriondu zure laguna Pulunpen!
pulunpe@gmail.com

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK

PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR

ELEKTRIZITATEA

KARI KOLAR ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

GOTELET-A KENTZEA

FATXADAK ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA (IMPERMEABILIZACIONES)

KALITATEA ETA GARBITASUNA

AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com

CAJA RURAL DE NAVARRA

2022ko Zozketa *mundiala*



Sariak

3 Elgorriagako bainu etxean asteburuko egonaldiak

Asteburuko bidaiakł 2 lagunentzat

2 Landaetxetan egonaldiak

18 Bazkari edo afari ł bikoitz (inguruko ostatuetan)

10 Txerri gizen

Axuri eder

30 Saskitto
25 Gazta
8 Esneki Sorta ł
Eta..... beste anitz sari

WWW.AMEZTI.EUS